

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAK KONTAKTURIK GABEKO BARIK TXARTELA BIZKAIKO BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKOAN EZARRI ETA APLIKATZEKO 2008KO URRIAREN 15EAN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN BOSGARREN LUZAPENA, BIZKAIBUSEN LINEETAN GARRAIO PUBLIKOKO LAGUNTZAILEAREN TITULUA ORDAINTZEKO SALBUESPENAREN EZARPENA GARATZEKO.

QUINTA AMPLIACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA PARA LA IMPLANTACIÓN Y APLICACIÓN DE LA TARJETA SIN CONTACTO BARIK EN EL TRANSPORTE PÚBLICO DE VIAJEROS DE BIZKAIA DE 15 DE OCTUBRE DE 2008, DESARROLLANDO LA IMPLANTACIÓN DE LA EXENCIÓN DE PAGO DE TÍTULO DE TRANSPORTE PÚBLICO DE ACOMPAÑANTE EN LAS LÍNEAS DE BIZKAIBUS.

BATU DIRA

Alde batetik, **UNAI REMENTERIA MAIZ** jaun txit gorena, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren izenean eta ordezkartzan (BGP aurrean).

Bestetik, **MIGUEL ÁNGEL GÓMEZ VIAR** jaun txit argia, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta horren ordezkari gisa (aurrerantzean BFA).

Parte hartzen duten alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmena egiteko eta dagokien erakundea ordezkatzeko ahalmen juridikoa, eta honako hau sinatzea erabaki dute: "Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak kontakturik gabeko BARIK txartela Bizkaiko bidaiarien garraio publikoan ezarri eta aplikatzeko 2008ko urriaren 15ean sinatutako lankidetzahitzarmenaren bosgarren luzapena, Bizkaibusen lineetan garraio publikoko laguntzailearen titulua ordaintzeko salbuespenaren ezarpena garatzeko".

REUNIDOS

De una parte, el **Excmo. Sr. D. UNAI REMENTERIA MAIZ** en nombre y representación del Consorcio de Transportes de Bizkaia (en adelante CTB).

Y de la otra, el **Ilmo. Sr. D. MIGUEL ANGEL GOMEZ VIAR**, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (en adelante DFB).

Las partes comparecientes se reconocen recíprocamente el carácter con que intervienen y su plena capacidad jurídica para convenir y representar a sus respectivas Instituciones y deciden suscribir la "Quinta ampliación del Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Consorcio de Transportes de Bizkaia para la implantación y aplicación de la tarjeta sin contacto BARIK en el transporte público de viajeros de Bizkaia de 15 de octubre de 2008, desarrollando la implantación de la exención de pago del título de transporte público de acompañante en las líneas de Bizkaibus."

AURREKARI ADMINISTRATIBOAK

ANTECEDENTES ADMINISTRATIVOS

LEHENENGOA

BFA da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoaren arloan eskumena duen Administrazioa. Bizkaibus zerbitzuaren bidez kudeatzen du hori, zerbitzua Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailari atxikita dagoela.

BGP, berriz, 1975ean eratu zen toki erakunde modura, eta nortasun juridiko propioa eta kontsorzioan bildutako gainerako entitateetatik (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Bilbo Metropolitikoko Trenbideak lotzen dituen gainerako udalak) berezia du. Ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuak onetsitako Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuen 5. Artikuluan xedatutakoaren arabera, Partzuergoari eskumen hau dagokio: bere lurralde-eremuko garraio sistemaren jardun egokiaz arduratzea, bere eskumenen barnean horretarako behar diren neurriak hartu edo proposatzeko gaitasunarekin. Administrazio-antolaketa eta egitura teknikoa izanda, gai da Barik txartelaren eta garraio kolektiboko sareko tarifa-sistemaren titulu komunak bere titulartasunari atxikita dagoena funtzionamendu ondo kudeatzeko, baita haien erabilera sustatzeko eta tarifa-sistema erraz, eskuragarri eta bateratua koordinatzeko ere.

2008. urtean, garraio arloan eskumena duten erakundeek kontakturik gabeko Barik txartela ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten GBPrekin, Bizkaiko garraio publikoan erabiltzeko. Bizkaibusen eskumena daukan erakundea izanda, BFAk Bizkaibus zerbitzuaren erakunde eskudun den aldetik, 2008ko urriaren 15ean sinatu zuen aipatutako hitzarmena (dokumentu hau hitzarmenaren bosgarren handitzea da).

PRIMERO

La DFB es la Administración competente en el ámbito del Transporte Público Interurbano de Viajeros por Carretera, que gestiona a través del servicio denominado Bizkaibus, adscrito al Dpto. de Transportes y Movilidad Sostenible.

El CTB, fue creado en 1975 como entidad local con personalidad jurídica propia e independiente de las entidades consorciadas (Gobierno Vasco, Diputación Foral de Bizkaia, Ayuntamiento de Bilbao y demás Ayuntamientos a los que afecta el paso del Ferrocarril Metropolitano de Bilbao) y de acuerdo con lo dispuesto en el art. 5 de los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia, aprobados por Real Decreto 1769/1976 de 18 de junio, le corresponde cuidar del buen funcionamiento del sistema de transporte de su área territorial, proponiendo o adoptando, en los límites de su competencia, cuantas medidas sean necesarias para el referido fin. Dispone de una organización administrativa y estructura técnica capaz de gestionar el buen funcionamiento de la tarjeta Barik y de los títulos comunes del sistema tarifario de la red de transporte colectivo, de fomentar su utilización y de coordinar un sistema tarifario sencillo, asequible y unificado.

En el año 2008 las distintas instituciones competentes en materia de transporte suscribieron convenios con el CTB para la implantación de una tarjeta sin contacto, Barik, para su uso en el transporte público de Bizkaia. La DFB, entidad competente de Bizkaibus, firmó el citado Convenio el 15 de octubre de 2008., sobre el que este documento es su quinta ampliación.

Hitzarmenak Barik txartela garraibide ezberdinetan ezartzea garatu eta arautzen du, garraibide guztietarako garraio txartel bakar gisa sortu zena, eta euskarri berean hainbat garraio-titulu eta aplikazio asko bil ditzake.

2014ko abenduaren 14an, Barik txartela Bizkaibussen lineetan ustiatu eta kudeatzeari buruzko kontratuak sinatu ziren BPGren eta Bizkaibussen emakidadun berrien artean: Pesalur, Grupo Acha Movilidad Lujua Txorierrri Mungialdea, Grupo Acha Movilidad Enkarterri, Ezkerraldea-Meatzaldea Bus eta Bustuarialdea Lea Artibai Bus. Kontratu horietan, Barik txartelaren eta partzuergoaren tituluaren funtzionamendua adierazi eta arautzen da garraibide horietan.

2017ko uztailaren 14an honako hau sinatu zuten: "Lehenengo hitzarmen Bizkaiko aldaketa honako honi dagokionez: Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, gazteentzako hileko partzuergo-txartela, Gazte Bizkaibus izenekoa, garatzeko xedez, Barik txartelaren barruan".

2017ko apirilaren 8an, Metro zerbitzuaren 3. linea martxan jartzearekin batera, partzuergoaren epe-titulu multimodal batzuk ezarri ziren Barik txartelaren barruan. Horrela, bidaiariari eskaintzen zaio hainbat garraibidetan bidaiatzea titulu bera erabilita: Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro, Gazte 70 eta Gazte Oro. Horren ondorioz, Gazte Bizkaibus eta Gazte Metro Bilbao titulu monomodalak desagertu ziren.

Barik txartelaren ezarpenari eta aplikazioari buruzko 2008ko urriaren 15eko lankidetzaz-hitzarmenaren bigarren luzapena eta aldaketa 2017ko otsailaren 2an sinatu zen, zehatz-mehatz, BPGren eta BFAren artean, Bizkaibussen lineetan baliozkoak diren Gazte 70 eta Gazte Oro tituluak Barik txartelean ezartze aldera.

El Convenio desarrolla y regula la implantación de la tarjeta Barik en los distintos modos de transporte, concebida como una única tarjeta de transporte para todos los modos de transporte y puede reunir en el mismo soporte varios títulos de transporte y múltiples aplicaciones.

El 14 de diciembre de 2014 se suscribieron contratos relativos a la explotación y gestión de la tarjeta Barik en las líneas de Bizkaibus entre el CTB y los nuevos concesionarios de Bizkaibus: Pesalur, Grupo Acha Movilidad Lujua Txoeirri Mungialdea, Grupo Acha Movilidad Enkarterri, Ezkerraldea-Meatzaldea Bus y Bustuarialdea Lea Artibai Bus, en los que se recoge y regula el funcionamiento de la tarjeta Barik y de los títulos consorciados para con ellos.

El 14 de julio de 2017 se formalizó una "Primera modificación del Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Consorcio de Transportes de Bizkaia desarrollando la implantación de un billete consorciado mensual joven en Bizkaibus, denominado Gazte Bizkaibus en la tarjeta Barik".

El 8 de abril de 2017, con la entrada en servicio de la Línea 3 del Servicio Metro se implantaron títulos consorciados multimodales de carácter temporal integrados en la tarjeta Barik, ofertando así al usuario viajar en varios modos de transporte con el mismo título: Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro, Gazte 70 y Gazte Oro, procediéndose a la supresión de los títulos monomodales Gazte Bizkaibus y Gazte Metro Bilbao.

Concretamente, el 2 de febrero de 2017, se suscribió entre el CTB y la DFB la segunda ampliación y modificación del Convenio de Colaboración para la implantación y aplicación de la tarjeta Barik de 15 de octubre de 2008, desarrollando la implantación de los títulos Gazte 70 y Gazte Oro en la Tarjeta Barik válidos en las líneas de Bizkaibus.

2017ko azaroaren 2an honako hau arautu zuten "Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak kontakturik gabeko BARIK txartela Bizkaiko Bidaiarien Garraio Publikoan ezarri eta aplikatzeko 2008ko urriaren 15ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren hirugarren luzapena eta aldaketa, Bizkaiko Garraio Publikoko Bezeroen Arretarako Bulego Integralak abiaraztea, martxan jartzea eta kudeatzea arautzekoa"

BIGARRENA

BGPK ezarritako eta egokitutako ekipoak BGPK baimendutako erabileretarako bakarrik erabiliko dira.

HIRUGARRENA

Bizkaiko Batzar Nagusien 2021eko azaroaren 17ko Osoko Bilkuran arauz besteko proposamenari buruzko erabakia hartu zen, hain zuzen ere Bizkaiko Lurralde Historikoko garraio publikoan laguntzailea behar duten desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen berdintasun eraginkorra bermatzeko abian jarri beharreko neurriei buruzkoa.

Baldintza horrek aukera eman behar dio laguntzaileari onuradunarekin batera bidaiatzeko, garraio-titulua ordaintzetik salbuetsita geratuz.

Aipatutako Erabakia betez, 2022ko apirilaren 28ko BGPren Kontseilu Nagusiak erabaki zuen hau ezartzea: CIE 10/OMS-2001 delakoaren arabera 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 muga-kodeak dituzten eta pertsonak eurek eskatu ondoren mendetasun-maila aitortua duten % 45 edo gehiagoko adimen-degaitasuna duten pertsonak garraio-titulua ordaintzetik salbuestea.

El 2 de noviembre de 2017 se formalizó la "Tercera ampliación y modificación del Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Consorcio de Transportes de Bizkaia para la implantación y aplicación de la tarjeta sin contacto BARIK en el transporte público de viajeros de Bizkaia de 15 de octubre de 2008, regulando la implantación, puesta en marcha, funcionamiento y gestión de las Oficinas de Atención al Cliente Integrales del Transporte Público de Bizkaia".

SEGUNDO

Los equipos instalados y adaptados por el CTB sólo deben ser utilizados para los usos autorizados por el CTB.

TERCERO

En el Pleno de 17 de noviembre de 2021 de las Juntas Generales de Bizkaia se adoptó el acuerdo sobre la Proposición No de Norma, relativa a las medidas a poner en marcha para garantizar la igualdad efectiva de derechos de las personas con discapacidad que precisan de acompañante en el transporte público del Territorio Histórico de Bizkaia.

La condición debe permitir que el acompañante viaje junto con el beneficiario quedando exento del pago de su título de transporte.

En cumplimiento de dicho Acuerdo, el Consejo General del CTB, en sesión de 28 de abril de 2022 acordó la implantación de la medida de exención del pago del título de transporte a las personas de apoyo a personas con discapacidad intelectual igual o superior al 45% con códigos de limitación 2101, 2102, 2103, 2105 y 2106 según el CIE 10/OMS-2001 y grado de dependencia reconocido, tras solicitud de las propias personas.

BGPk Barik modu guztietan ezarriko du neurri hau, Bizkaibus zerbitzuan barne.

Gertaera honek apur bat aldatzen du Barik txartel pertsonalizatuen ohiko funtzionamendua eta, ondorioz, hitzarmen luzapen honetan eragiketa horren erregulazioa egin behar da.

Xede horrekin, eskema horren baitan, BGPk eta Bizkaiko Foru Aldundiak erabaki dute garraio publikoko laguntzailearen titulua ordaintzeko salbuespena ahalbidetzea Bizkaibuseko lineetan.

BFAko Gobernu Kontseiluak eta BGPko Kontseilu Orokorrak, 2022ko abenduaren 7an eta 2022ko irailaren 20an egindako bileretan, hitzarmen hau onestea erabaki dute, eta Miguel Angel Gomez Viar jauna hitzarmenaren bosgarren luzapen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean sinatzeko ahalmena eman zaio. Bizkaiko Garraio Partzuergoko Presidente jaunak hitzarmena sinatzeko ahalmena du ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretuz onartutako Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Estatutuen 23.1 artikulua horretarako ahalmena ematen diolako.

Horregatik guztiagatik, honako agiri hau egin da: “Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak kontakturik gabeko Barik txartela Bizkaiko bidaiarien garraio publikoan ezarri eta aplikatzeko 2008ko urriaren 15ean sinatutako lankidetzahitzarmenaren bosgarren luzapena, Bizkaibuseko lineetan garraio publikoko laguntzailearen titulua ordaintzeko salbuespena ezarpena garatzeko”. Ondoren azaltzen dira luzapena arautzen duten klausulak:

El CTB procederá a la implantación de esta medida en todos los modos Barik, incluido el servicio Bizkaibus.

Dado que este hecho altera ligeramente el funcionamiento habitual de las tarjetas Barik personalizada, se requiere la regulación de esta operativa en la presente ampliación de convenio.

A este fin, y encuadrado en este esquema, CTB y la DFB han llegado al acuerdo de posibilitar la exención de pago de título de transporte público de acompañante en las líneas de Bizkaibus.

El Consejo de Gobierno de la DFB y el Consejo General del CTB, en sesiones celebradas los días 7 de diciembre de 2022 y 20 de septiembre de 2022 respectivamente, acordaron la aprobación del presente convenio facultándose al Sr. D. Miguel Angel Gomez Viar para la suscripción de la presente quinta ampliación de convenio por parte de la DFB. El Sr. Presidente del Consorcio de Transportes de Bizkaia se halla habilitado para ello en virtud de lo establecido en el art. 23.1 del Real Decreto 1769/1976 de 18 de junio por el que se aprueban los Estatutos del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Por todo ello se otorga el presente documento “Quinta ampliación del Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Consorcio de Transportes de Bizkaia para la implantación y aplicación de la tarjeta sin contacto Barik en el transporte público de viajeros de Bizkaia de 15 de octubre de 2008, desarrollando la implantación de la exención de pago de título de transporte público de acompañante en las líneas de Bizkaibus”, que se regirá por las siguientes

KLAUSULAKCLÁUSULAS**1.- HITZARMENAREN HONEN SUBJEKTUAK****1.- SUJETOS DE LA PRESENTE AMPLIACIÓN DE CONVENIO**

- BGP, ekitaldi honetan haren lehendakari Unai Rementería Maiz jaunak ordezkatzeko duena.

- El CTB representado en este acto por su Presidente, D. Unai Rementería Maiz.

- BFA, ekitaldi honetan Miguel Ángel Gómez Viar Diputatu jaunak ordezkatzeko duena.

- La DFB, representado en este acto por el Sr. Diputado D. Miguel Angel Gomez Viar.

2.- HITZARMENAREN LUZAPAN HONEN XEDEA**2.- OBJETO DE LA PRESENTE AMPLIACIÓN DE CONVENIO.**

Bizkaibus lineetan garraio publikoko laguntzailearen titulua ordaintzeko salbuespena ezartzeko, BGP eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sortuko diren harremanak arautzea da hitzarmenaren handitze honen xedea.

Constituye el objeto de la presente ampliación de convenio la regulación de las relaciones entre el CTB y la DFB derivadas de la puesta en marcha del proyecto de exención de pago de título de transporte público de acompañante en las líneas de Bizkaibus.

3.- IRIZMENA**3.- ALCANCE**

Garraio-titulua edukizetik salbuetsita geratzen da honako baldintza bikoitz hau betetzen duten pertsonen laguntzailea: 2101, 2102, 2103, 2105 eta 2106 muga-kodeekin % 45 edo gehiagoko desgaitasuna betetzen dutenak, betiere CIE10/OMS-2001ren arabera eta Gizarte Ekintza Sailak aitortutako mendetasun-graduarekin, eta desgaitasunaren titularrak bidaiarako balio duen garraio-tituluarekin bidaiatzen badu, eta HABn Barik txartel pertsonalizatua eskatu eta, ondorioz, egokitu badu; txartel horrek laguntzailearen ordainketatik salbuesteko gaitasuna ematen dio.

Quedan exentas de poseer título de transporte el/la acompañante de las personas que cumplan la doble condición de discapacidad igual o superior al 45% con códigos de limitación 2101, 2102, 2103, 2105 Y 2106 según el CIE10/OMS-2001 y grado de dependencia reconocido por el departamento de Acción Social, siempre y cuando la persona titular de la discapacidad viaje con título de transporte válido para el viaje a realizar y haya hecho en la OAC la solicitud y consecuente adaptación de su tarjeta Barik personalizada que le habilita para la exención de pago del acompañante

Hala ere, horiek Bidaiarien Nahitaezko Aseguruaren eta Erantzukizun Aseguruaren babespean daude.

No obstante, los mismos están cubiertos por el Seguro Obligatorio de Viajeros y el Seguro de Responsabilidad.

Bi baldintzak betetzen dituen pertsonak alta emanda egon behar du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzan, sail horrek kudeatzen baitu baldintzak betetzea.

La persona que cumpla las 2 condiciones debe estar dada de alta en Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, que es quien gestiona el cumplimiento de las condiciones.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia



foru aldundia
diputación foral

Baldintza hori egiaztatu ondoren, Barik txartel pertsonalizatua (Kide edo Giza) markatuko da, doan bidaiatuko duen laguntzaile batekin bidaiatzeko eskubidea izan dezan. Halaber, hala badagokio, laguntzailearen salbuespen horren balio-data markatuko da, betiere Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazten dizkigun datuetan oinarrituta. Ez da Barik txartel espezifikorik sortuko, baizik eta Kide/Giza txartelen gainean jardungo da.

Barik txartelean egiten den barne-markari esker, txartel pertsonalizatu batekin bi aldiz jarraian balidatu ahal izango da, eta bigarren baliozkotzea doakoa izango da, zero tarifyan, diru-zorrorako edo aldi baterako titulurako.

Bizkaibus zerbitzuko garapenak BGPk egiten ditu, eta, horretarako, dagokion kontratua lizitatu du.

Hitzarmenaren luzapen hau formalizatu izanak ez du eraginik izango partzuergoko tituluei eta Barik txartelari dagokienez aurretik sinatu diren kontratuetan, ez baitira aldatuko hitzarmen horien izaera eta baldintzak.

4.- ESPARRU EKONOMIKOA

Adierazitako erabiltzaileen laguntzaileen bidaiak ez zaizkio ordainduko. Ez zaio ordainduko dagokion operadoreari baina egindako bidaia gisa zenbatuko dira. Barik likidazioak bidaia hori barne hartuko du zero kostuarekin.

5.- DATUAK, INFORMAZIOA ETA PROZESUAK

Laguntzailea salbuestearen zioz sortzen den informazio guztia (ekintzak, kargatzeak, ezeztatzeak eta balidazioak) bidaliko diote dagokion operadoreak bidaliko du sortzen den unean bertan, BGPk ezarri ez duen inolako trataera edo prozesurik aplikatu gabe, Barik sistemarentzat zehazten diren protokolo orokorrej jarraikiz

Una vez acreditada la condición se marcará internamente su tarjeta Barik personalizada (ya sea Kide o Giza) para que le dé derecho a viajar con un acompañante gratis, así como, en su caso, la fecha de validez de esta exención de acompañante, siempre en base a los datos comunicados por la Diputación Foral de Bizkaia. No se creará una tarjeta Barik específica sino que se actuará sobre las existentes Kide/Giza.

La marca interna que se realiza en la tarjeta Barik posibilita que con una tarjeta personalizada se pueda validar 2 veces seguidas y que la segunda validación sea gratuita, a tarifa cero, tanto en títulos monedero como temporales.

Los desarrollos en Bizkaibus los hace el CTB para lo que ha licitado el correspondiente contrato.

Esta ampliación de convenio no afecta a los convenios o acuerdos anteriormente suscritos en referencia a los títulos consorciados y a la tarjeta Barik, ya que no altera la naturaleza y condiciones de los mismos.

4.- MARCO ECONÓMICO

Los viajes de los acompañantes de los usuarios indicados no se abonarán al operador correspondiente, si bien computarán como viajes realizados. La liquidación Barik incluirá ese viaje a coste cero.

5. DATOS, INFORMACIÓN Y PROCESOS

Toda información generada por la exención de acompañante (acciones, recargas, anulaciones y validaciones) será remitida por el operador correspondiente al CTB una vez originada y sin pasar por ningún tratamiento o proceso que no haya sido establecido por el CTB, según los protocolos generales ya definidos para todo el sistema Barik.

Halaber, Barik Sistema modu eraginkorrean erabili eta kudeatzeko nahitaezkoa da informazio egoki etaeguneratua izatea.

Informazio hori egunero bidaliko da.

Instalazio, areto, bulego eta abarretan egindako eragiketek (BABak, baliozkotzea, birkarga...) sorrarazten dituzten datuak BGPk ezarritako estipulazioen eta jardunbide egokien arabera soilik tratatu, prozesatu, erregistratu, bidali eta eskuratu ahal izango dira, eta soil- soilik BGPk zehaztutako xedeetarako.

Sistemaren funtzionamendu onerako, BGPk informazioa, jarraibideak, zerrendak eta abarrekoak bidali behar dizkie erakundeei eta garraio operadoreei. Ildo horretatik, kontratuaren handitze honetan BFAk konpromisoa hartzen du informazio hori behar bezala erabiltzeko: jaso, zabaldu, hedatu edo landu egingo du, edota behar diren neurri guztiak hartuko ditu, BGPk ezarritako araei jarraituz eta informazio hori zertarako bidali den kontuan hartuz.

Titulu komunei buruzko hitzarmen eta kontratuetan xedatutakoaren jarraipen gisa, BGPk eskubidea izango du operadoreek berrori ematen dizkieten datuen eta informazioaren auditoria egiteko.

6. INSTALAZIOEN EGOKITZAPENA ETA KOORDINAZIO EKIPAMENDUA

Bizkaiko Foru Aldundiak aukera emango du Bizkaibusen instalazioetan desgaitasun intelektuala duten erabiltzaileen laguntzaileak ordaintzetik salbuesteko, eta horretarako berrikusi eta egokitu egin behar dira garraibide guztien sistemak eta ekipamendua.

Asimismo, para el correcto funcionamiento y gestión del Sistema Barik, resulta crucial la disponibilidad de información adecuada y actualizada.

La información requerida será remitida con una periodicidad diaria.

Los datos generados por las operaciones realizadas en las distintas instalaciones, dependencias, oficinas (OACs, validación, recarga...) sólo podrán ser tratados, procesados, registrados, enviados y obtenidos de acuerdo con las estipulaciones y buenas prácticas establecidas por el CTB y exclusivamente para los fines determinados por éste.

Para el buen funcionamiento del sistema el CTB debe enviar información, instrucciones, listas, etc. a las distintas instituciones y operadores de transporte. En este sentido, la DFB se compromete, por la presente ampliación de convenio, a dar el debido destino a esa información: recibiendo, difundiendo, propagando, tratando o adoptando cuantas medidas sean requeridas, según las reglas establecidas por el CTB y conforme al objetivo para el que dicha información ha sido enviada.

Como continuación de lo dispuesto en los convenios y contratos relativos a los títulos comunes, el CTB se reserva el derecho de auditoría de los datos e información suministrados por los operadores al CTB.

6. ADAPTACIÓN DE INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO, COORDINACIÓN

La DFB permitirá la exención del pago a los acompañantes de los usuarios con discapacidad intelectual en las instalaciones del servicio Bizkaibus, lo que requiere la revisión y adecuación del equipamiento y sistemas para adaptarlos al mismo.

BGPren ardura izango da, zehaztaper teknikoen agiriak eta sistema guztien egokitzapenerako prozedura gainbegiratzea eta onartzea, horrela sistemen arteko jarraitutasuna eta baterakuntza bermatuta egon daitezten eta instalazio desberdinen arteko garraio publikoko laguntzailearen titulua ordaintzeko salbuespena ezarpena gauza dadin.

Ekipamendua eta instalazioak egokitzeko eta Bizkaibusean ingurunean garatzeko inbertsioa BGPk egingo du zuzenean.

Bizkaibuseko zerbitzuetan laguntzailea salbuespena ezarri ondoren sortzen diren aktibo guztiak (instalazioak, garapenak, hardwarea eta softwarea) garraio-operadoreen esku jarriko ditu BGPk, eta elementu guztiak akta horietan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

Instalaturako eta egokiturako ekipoa BGPk baimendutako erabilerearako soilik erabiliko dira.

Proiektu hau Bizkaian garatzeko prozesua BGPk zuzentzen du. Beste lurraldeetako garraio arloko agintarien solaskidea da, eta berak koordinatuko ditu operadoreak, sistemak, baldintzak, eskakizunak, garapenak eta parte hartzen duten jardule guztien lanak, maila guztietan integrazio osoa lortzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak baimena emango die garraio-operadoreei BGPekin beharrezkoak diren akordioak sinatzeko, Bizkaibus zerbitzuko lineetan garraio publikoko laguntzailearen titulua ordaintzeko salbuespena ezarpena abian jartze aldera, bat etorritz dokumentu honetan nahiz dokumentu honen bidez handitzen den hitzarmenean ezarritakoarekin.

La supervisión, la aprobación de los pliegos de especificaciones técnicas y del procedimiento necesario para la adaptación de todos los sistemas será responsabilidad del CTB, a fin de garantizar la necesaria continuidad y unificación de los sistemas y posibilitar la efectiva exención de pago de título de transporte público de acompañante en las distintas instalaciones.

La inversión de la adaptación del equipamiento, instalaciones y desarrollo en el entorno de Bizkaibus se realizará directamente por el CTB.

Los activos (instalaciones, desarrollos, hardware y software) implementados como consecuencia de la implantación de la exención de acompañante en el servicio Bizkaibus serán puestos por el CTB a disposición de los operadores de transporte de dicho servicio mediante la oportuna acta, rigiéndose todos los elementos por las condiciones recogidas en dichas actas.

Los equipos instalados y los adaptados solo serán utilizados para los usos dispuestos y autorizados por el CTB.

El desarrollo de este proyecto en Bizkaia está dirigido por el CTB, que ejerce la función de coordinador de los diferentes operadores, sistemas, condiciones, requerimientos, desarrollos y trabajos de todos actores participantes, con el objetivo de lograr su plena integración a todos los niveles.

La DFB autorizará a los operadores de transportes a suscribir los acuerdos necesarios con el CTB para la puesta en marcha de exención de pago de título de transporte público de acompañante en las líneas de Bizkaibus, de conformidad con lo establecido en este documento y en el convenio al que éste amplía.

7.- DATU PERTSONALEN BABESA

7.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

7.1.- Helburua eta esparrua

Atal honen helburua da BFAk betetzera behartuta dagoen jarraibideak eta neurri teknikoak eta antolaketakoak zehaztea. Adjudikazioduna behartuta dago tratamenduaren arduraduna delako datu pertsonalak babesteko gailan, indarrean dagoen araudian ezarrita dauden eskakizunak betetzen dituela ziurtatu behar delako, eta BGP tratamenduaren erantzule den datuen osotasuna, isilpekotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzen dituela ziurtatu behar delako. Hain zuzen, tratamenduaren arduradunak datu horiek eskuratuko ditu hitzarmen hau gauzatzean. Datu horiek bestelakotzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihestu behar du, kontuan hartuta teknologiaren egoera, bildutako datuen izaera eta dauzkaten arriskuak, direla giza jardunaren ondoriozkoak, direla ingurune natural edo fisikokoak.

7.2.- Norainokoa

Hitzarmen hau betetzeagatik sortutako prestazioak gauzatzeko, BGPk, tratamenduaren arduradunak, tratamenduaren eragilearen esku jarriko ditu Barik sistemaren eta bertan dauden tituluaren txartelak eta BBC turismo-txartela erabiltzeagatik sortutako datu pertsonalei buruzko informazioa, bai eta bezeroei arreta emateko bulegoetan jasotakoa ere, hala badagokio.

Tratamenduaren arduradunak neurri teknikoak eta antolaketakoak hartu beharko ditu, 7.14. atalean zehazten direnak. Edonola ere, hauetarako mekanismoak ezarri beharko ditu:

a) Tratamendu sistemen eta zerbitzuen etengabeko isilpekotasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzea.

7.1.- Objeto y ámbito

El objeto del presente apartado es definir las instrucciones y medidas técnicas y organizativas a las que queda obligada la DFB como Encargado de Tratamiento en materia de protección de datos de carácter personal a fin de asegurar que cumpla las exigencias establecidas en la normativa vigente e implante cuantas medidas sean precisas para garantizar la integridad, confidencialidad y disponibilidad de los datos de los que el CTB es Responsable de Tratamiento y a los que el Encargado de Tratamiento tenga acceso en la ejecución del presente convenio, evitando su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, habida cuenta del estado de la tecnología, la naturaleza de los datos almacenados y los riesgos a que están expuestos, ya provengan de la acción humana o de medio físico onatural.

7.2.- Alcance

Para la ejecución de las prestaciones derivadas del cumplimiento del presente convenio, el CTB, Responsable de Tratamiento, pondrá a disposición del Encargado de Tratamiento la información relativa a todos los datos personales derivados del uso de las tarjetas del sistema Barik y los títulos en ella contenidos, billete turístico BBC y oficinas de atención al cliente, en su caso.

El Encargado de Tratamiento deberá adoptar las medidas de índole técnica y organizativas que se definen en el apartado 7.14 debiendo implantar en todo caso mecanismos para:

a) Garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.

b) Gorabehera fisiko edo tekniko bat gertatzen bada, datu pertsonalen eskuragarritasuna eta irisgarritasuna azkar lehengoratzeko.

c) Ezarri diren neurri teknikoen eta antolaketakoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko, erregularitasunez, tratamenduen segurtasuna bermatzeko.

d) Datu pertsonalak kodetu eta seudonimizatzea, egokia bada.

b) Restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.

c) Verificar, evaluar y valorar, de forma regular, la eficacia de las medidas técnicas y organizativas implantadas para garantizar la seguridad de los tratamientos.

d) Seudonimizar y cifrar los datos personales, en su caso.

7.3.- Tratamenduen xedeak

Tratamenduaren arduradunak egin beharreko tratamenduak mugatzeko konpromisoa hartzen du: hitzarmen honetatik eratorrita, BGPK agintzen dizkion zerbitzuak emateko behar-beharrezkoak diren jarduketak egitera mugatuko da. Beraz, bere burua behartuko du datu pertsonalen gaineko beste tratamendurik ez egitera eta agindutako zerbitzuak ematea ez den beste xede baterako ez erabiltzera edo aplikatzera.

Horrenbestez, tratamenduaren arduradunak BGP tratamenduaren erantzule den datuak eskuratu eta tratatuko ditu zerbitzu horiek gauzatzekoaren xede hutsetarako, BGPren izenean eta kontura jardunda eta partzuergoaren arauen arabera beteko ditu bere eginkizunak.

Datu pertsonalak BGPK une bakoitzean adierazten dizkion jarraibideetara estu egokituta tratatzeko konpromisoa hartzen du tratamenduaren arduradunak, bai eta atal honetan eta datu pertsonalak babesteko gaien aplikatzeko den araudian xedatuta dagoenean ezarritakora ere.

7.3.- Finalidades de los tratamientos

El Encargado de Tratamiento se compromete a limitar los tratamientos a realizar, a las actuaciones que resulten estrictamente necesarias para prestar los servicios que el CTB le encomiende derivados del presente convenio, obligándose a no realizar ningún otro tratamiento sobre los datos personales, ni a aplicarlos o utilizarlos con una finalidad distinta a la prestación de los servicios encomendados.

Por tanto, el Encargado de Tratamiento accederá y tratará los datos de los que el CTB es Responsable de Tratamiento para los exclusivos fines de la ejecución de dichos servicios, actuando en nombre y por cuenta del CTB y desempeñará sus funciones de acuerdo a sus directrices.

El Encargado de Tratamiento se compromete a realizar el tratamiento de datos personales ajustándose plenamente a las instrucciones que en cada momento le indique el CTB, así como a lo establecido en el presente apartado y a lo dispuesto en la normativa que resulte de aplicación en materia de protección de datos de carácter personal.

Tratamenduaren arduradunak uste badu jarraibideetakoren batek datu pertsonalak babesteko gaitan indarrean dagoen araudiko zehazki xedapen urratzen duela, tratamenduaren arduradun horrek berehala emango dio gorabehera horren berri BGPri.

7.4. Datu pertsonalak jakinarazteko debekua

BGPk emandako datu pertsonalak bere kontrolpean eta zaintzapean gordetzeko konpromisoa hartzen du tratamenduaren arduradunak, zerbitzuak emateagatik eskuratzen dituenak hain zuzen, eta ez dizkie emango, transferituko edo jakinaraziko beste pertsona batzuei, ez eta gordetzeko ere, BGPk kontraktorik adierazi ezean. Hala egiten badu, alde aurretik eta idatziz, datuak zer erakunderi jakinaraziko dizkion, jakinaraziko dizkion datuak zein diren eta jakinarazteko zer segurtasun neurri hartuko dituen adierazi beharko du.

7.5. Datuak itzultzeko betebeharra

BGPk emandako datuak eta datu pertsonal edo informazio konfidentzialen bat izan dezakeen beste edozein euskarri edo dokumentu itzultzeko konpromisoa hartzen du tratamenduaren arduradunak, eskatutako zerbitzuak ematen amaitutakoan edo BGPk hala eskatzen duenean. Tratamenduaren arduradunaren hedabideetatik gordetzen den informazio guztia ezabatuko du BGPri emandakoan eta hark onartu eta berrikusi ondoren. Ez du gordeko haren kopia osorik edo partzialik, edo agindutako lanen ondorioz edo emaitza moduan sortu den beste edozeinena.

Si el Encargado de Tratamiento considera que alguna de las instrucciones infringe cualquier disposición de la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal, el Encargado de Tratamiento informará inmediatamente de esta circunstancia al CTB.

7.4. Prohibición de comunicación de datos personales

El Encargado de Tratamiento se compromete a guardar bajo su control y custodia los datos personales suministrados por el CTB a los que acceda con motivo de la prestación de los servicios y a no divulgarlos, transferirlos o comunicarlos de cualquier forma a otras personas, ni siquiera para su conservación, salvo instrucción expresa del CTB, en la que se identificará, de forma previa y por escrito, la entidad a la que se deben comunicar los datos, los datos a comunicar y las medidas de seguridad a aplicar para proceder a la comunicación.

7.5. Obligación de devolución de datos

